
Bidaiariak mikroorganismo erresistenteak hedatzen dituzte



Nazioarteko bidaietan, uste baino ohikoagoa izan liteke bidaiariak mikroorganismo erresistenteak ekartzea etxera hesteetan. Hala erakusten du Washingtongo eta Maastrichteko unibertsitateetako ikertzaileek [Genome Medicine aldizkarian argitaratu berri duten ikerketa batek](#).

Afrikara eta Asiarra bidaiatu duten 190 herbeheretarren gorotzak aztertu dituzte, bidaiatu ondoren eta aurretik, eta ikusi dute antibiotikoekiko erresistentzia ematen duten gene (AMR) gehiago agertzen direla bidaiatu ondoren. Kasu guztietan, bidaiaren ondoren, nabarmen handiagoa izan zen AMR geneen aniztasuna. Eta, ezagutzen ziren AMR geneez gain, berriak ere aurkitu dituzte.

Guztira, 56 gene identifikatu dituzte. Haien artean, hamar arrisku handikoak dira, eta haietako sei ez ziren agertu bidaiatu aurreko laginetan. Bestalde, ohartarazi dute bidaiatu aurretik ere topatu zirela AMR geneak, eta, beraz, oso litekeena dela bidaiariak helmugara ere hedatzea gene horiek. ●

Euskal baleak gero eta txikiagoak dira, estresaren ondorioz

AEBko Ozeanoen eta Atmosferaren Administrazioak 1980tik egindako ikerketek agerian jarri dute [Ipar Atlantikoko sardako balea edo euskal balea \(*Eubalaena glacialis*\) txikitzen ari dela](#). Batez beste, balea heldu bat duela 30 urte baino 1,5 metro txikiagoa dela kalkulatu dute.

Ikertzaileek gogorarazi dutenez, gaur egun, 400 baino ez dira geratzen; garai historikoetan izan zuen oparotasunetik oso azpitik dago espeziea, beraz. Haien ehiza debekatuta dagoen arren, eta etsai zuzenik ez badute ere, giza jardueren kaltea jasaten jarraitzen dute. Are gehiago, azken urteetan kalte handiagoa jasan dute. Hain zuzen, urrutitik gidatutako ontzi eta droneen bidez egindako neurketetan, ikusi dute lesio subletalak (unean horretan heriotza eragiteko gai ez direnak) ugaritu egin direla; bereziki, arrantza-ontzien tresnek sortutakoak.



Euskal balea heldu bat (*Eubalaena glacialis*) kumearekin.
ARG.: Jabetza publikoa.

Ikertzaileen ustez, estres horrek baleak gutxiago haztea ekarri du, eta ugalketa-arrakasta txikiagoa izatea ere eragin lezake. Horrenbestez, ehiza debekatzea ez da nahikoa baleen populazioa bere onera ekartzeko. ●